

KORONABIRUSA ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN		NAFARROAN	
117 positibo berri	1.757 hildako EAEn	283 positibo berri	545 hildako
8.701 positibo guztira*	63 UCIn EAEn	12.523 positibo guztira	8 UCIn Nafarroan

*HERNANIN 255 (+12), ASTIGARRAGAN 52 (+1)

Ostalaritza sektorera bideratutako sentsibilizazio kanpaina batek erdigunea bisitatuko du ostegunean

Dinamizatzailer talde batek herritar eta ostalariei gomendioak emango dizkie ostegun arratsaldean, «pandemia eteteko hartu behar diren neurri-sanitarioak modu egokian betetzeko». Maskarillak ere banatuko dituzte.

ASTIGARRAGA OSTALARITZA

Dinamizatzailer talde batek Astigarragako erdigunea bisitatuko du ostegun honetan, indarrean dagoen osasun araudiaren azalpenak emateko. Gipuzkoan Gipuzkoako Ostalaritza Elkarteak jakinarazi duenez, bisitaren helburua da «herritarrak eta ostalaritza sektorea sentsibilizatzea, COVID-19ak eragindako pandemia eteteko hartu behar ditugun neurri-sanitarioak modu egokian betetzeko».

Kanpainaren abiapuntua da Eusko Jaurlaritzako Turismo eta Ostalaritza zuzendaritzak eta Euskadiko hiru lurraldeetako ostalaritza elkarteek urtero sinatutako elkarlanerako hitzarmena, eta Gipuzkoan Gipuzkoako Ostalaritza Elkarteak gidatuko du. Eta horrekin batera, Ostalaritza

sektoretik erakundeetako ordezkariak pandemiaren aurka egiten ari diren lana azpimarratu nahi izan dute, eta egiten ari diren lana txalotu.

Erdigunea bisitatuko dute

Sentsibilizazio kanpaina honek lurraldeko hainbat herri bisitatu ditu. Hernanin, esaterako, uztailaren amaieran izan ziren; eta gomendioak ematen izan diren herri guztietan herriko erdigunea izan dute indargunea. Astigarragan ere, herriko erdigunea bisitatuko dute ostegunean, «jende pilaketa gehien jasotzen duen udalerriko gunea» delako. Arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara bitartean izango da dinamizatzailer taldea bertan, osasun araudiaren azalpenak ematen.

Denbora tarte horretan herritarrak, ostalariak eta hauen



Bezeroak tabernako terrazan eserita.

bezeroak informatzea izango dute helburu, «indarrean dagoen osasun araudia behar bezala betetzeko». Batez ere maskarillaren erabileran, distantzia soziala bermatzeko irizpideetan, eskuetako garbitasunean, edota hamarreko muga ez gainditzeko

neurrietan jarriko dute fokua. Eta bitarte horretan, herritarren artean maskarillak banatuko dituztela aurreratu dute.

Batez ere gazteei zuzenduta

Sentsibilizazio Kanpaina hau adin tarte guztietara zabaldu

nahi bada ere, gazteengana iristeko «ahalegin berezia» egingo dela adierazi dute. Izan ere, beraien ustetan momentu honetan COVID-19aren zabalkundea geldiarazteko kolektibo hau da «sentsibilizazio eta pedagogia lan gehien» eskatzen duena. **K**

Emakumeen euskal literaturaren inguruko mintegiaren aurkezpena izango da gaur, Kattalin Minerrekin

Udal liburutegiak lau saioko mintegia antolatu du ikasturtea hasteko: 'Emakumeen euskal literatura ikuspegi feministatik'.

HERNANI MINTEGIA

Emakume idazleak ezagutzeko helburuarekin, lau saio izango ditu Kattalin Miner hernaniarrak gidatutako mintegiak. Aurreneko saioa gaur izango da Udal liburutegian, arratsaldeko 19:00etan. Gainontzekoak hila-

betean behin egingo dira, abendura arte: urriaren 13an, azaroaren 16an eta azkena, abenduaren 9an. Gaurkoaren moduan, saio guztiak arratsaldeko 19:00etan hasita izango dira, liburutegian bertan. Edukiera mugatua denez, sarrerak aurrez eskuratu behar dira liburutegian.

Gaurko saioa berezia izango da, Mari Luz Esteban ere izango delako Minerrekin batera. Gizarte-antropologiako irakaslea da Esteban, Euskal Herriko Unibertsitatean. Antropologia feministan, eta medikuntzako antropologian aditua izanik lau liburu ezagun argitaratu ditu. Joan den hilabeteetan zuen Udal liburutegian bere liburu baten aurkezpena egiteko zita, baina egoera dela eta bertan behera gelditu behar izan zuen aurkezpenak.

Gaur, Emakumeen euskal literatura ikuspegi feministatik mintegia aurkeztuko dute Miner eta Estebanek. Antolatutako saioetan euskerazko emakume idazleen lan garaikideak ikuspegi feminista batetik irakurri eta landuko dituzte. Gainera, egun gartatzen diren kezka, diskurtso eta proposamenak mintegian dauden guztien artean hausnartuko dira. Eta era berean, ikuspegi horiek, genero ikuspegi eta ikuspegi feminista batetik

irakurtzea da mintegiaren beste helburu nagusietako bat.

Hurrengo saioa urriaren 13an izango da, eta Katixa Agirrerren *Atertu arte itxaron* liburua landuko dute. Azaroaren 16an *Hezurren erretura* izango da protagonista, Miren Agur Meaberena. Hirugarren saio honetan idazlea bertan egongo dela jakinarazi dute antolatzaileek. Eta azkenik, abenduaren 9an Uxue Apaolazaren *Umeek gezurra esaten dutenetik* liburua irakurri eta landuko da. **K**

FUNERARIA ORBEGOZO BEILATOKIA

Asegururik ba al duzu?
Deitu Orbegozora

24 orduko tlfnoa.
943 33 10 20

www.funerariaorbegozo.com

Zentrala: Latsunbe 7, Hernani

HERNANI ANDOAIN ASTIGARRAGA URNIETA GOIZUETA

* Zerbitzu partikularrak eta aseguru txarrekin
* Erresketak
* Lekualdatzak
* Beilatokiak
* Eskelak, korroak...

HATOR
AHOLKULARITZA

Fiskala, laborala eta Kontabilitatea.

Gure zerbitzuak euskaraz jasotzeko aukera duzu...

MAPFRE ASEGURUAK

Andre kalea 60, Hernani
Teli: 943 55 43 12
hator@hatoraholkularitza.net

PEÑA
sulabe

Okindegia - Janaridenda

Eguneroko zure beharrei erantzuteko, Kale Nagusian gaude.

Kale nagusia, 19 - Tel.: 943 55 23 98

ITXASPE

Arrandegia
Antziola 5
Tel.: 943 330 365
Mobila: 665 735 224
20120 Hernani

GAUR Giro nahasiagoa izango da. Zerua tarteka hodeitsu egongo da, hodei ugariarekin, eta noizbehinka zaparrada txikiren bat edo beste egin dezake, bereziki goizaldean. Goizean hegoaldeko haizea ibiliko da, baina arratsaldean iparraldera egingo du. **Min.18° / Max.27°**

BIHAR Temperatura igo egingo da berrito ere eta zeruan hodei batzuk eta urdingune zabalak tartekatuko dira. Goiz partean hegoaldeko haizea ibiliko da eta arratsaldean iparraldekoa sartuko da, kostaldean bereziki. **Min.18° / Max.29°**

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez: A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** **Gauzez: Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**



Sagardo Dastatze «berritzailea» eta gidatua izango da larunbat honetan

Euskal Sagardoan eta Nazioarteko Sagardoan Dastatze gidatua izango da. Sarrerak 5 euroan daude eskuragai, Biterin.

HERNANI SAGARDOA

Euskal Sagardoa Jatorri Deiturak antolatuta, Sagardo Dastatze berritzailea izango da larunbatean, eguerdiko 12:00etan, Atsegindegian. Maiatzean Uzta Berri Eguna egitekoa zen herrian, baina COVID-19ak sortutako egoerak bertan behera utzi zuen egitasmoa. Eta «egiteko asmoa zen moduko ekitaldirik egin ezin denez», Euskal Sagardoa jatorri deiturak sagardoa-



Herritarrek sagardoa dastatzen, joan den urteko Uztaberri egunean.

ren inguruko dastatze berezia eskaini nahi dio herritarrei.

Segurtasun neurri guztiak beteta egingo da dastatzea eta inguratzen denak Euskal Sagardoa ez ezik, Nazioarteko sagardo desberdinak dastatu ahal izango ditu. Mikel Garaizabal enologo

sumillerrak gidatuko du Euskal Sagardo dastatzea eta Dani Corman sumillerrak nazioarteko sagardo dastatzea gidatuko du.

Plazak mugatuak dira eta dastaketan parte hartzeko txartelak Biteri kultur etxean daude salgai, 5 euroan. **K**

38 pertsonari ireki diete espedientea, egungo osasun-arauak ez betetzeagatik

Igande gauean kalean botiloia egiten ari ziren gazte talde haundi bati espedientea ireki diete, osasun publikoa arriskuan jartzeagatik.

ASTIGARRAGA GERTAKARIA

Kalean jende asko edaten ari zela ikusita, bizilagunak izan ziren Ertzaintzari deitu eta gertaeraren berri eman zutenak. Dei baten bitartez jakinarazi zuten gazteak kalean zeudela edaten, talde haundi batean bilduta. Agenteak bertan zeudela, botiloia egiten ari ziren gazteak

identifikatu zituzten eta Ertzaintzak jakitera eman duenez, horietako hogeita hemezortzi pertsonari administrazio-salaketak jarri zieten.

Astigarragako Sagardo Museoaren inguruan bildu ziren gazteak joan den igandean, botiloia egiteko. Talde haundi batean bildu eta jokabide horrek zuen arriskua ikusita, bizilagu-

nek Ertzaintzari deitu eta zenbait polizia-baliabide gerturatu ziren gazteak bilduta zeuden lekura. Izan ere, horrelako jokabidea izateak eta pandemia kontrolatzeko ezarritako neurri murriztaileak ez betetzeak arriskua ekar liezaioke osasun publikoari.

Azken egunetan beste hainbat salaketa egin dira lurralde mailan, horrelako gertaerak izan direlako. Eta egoeraren aurrean, kalean edateko bilkurak debekatu daudela azpimarratu dute autoritateek. **K**

JASOTA BEZALA

Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizenak, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa. | Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. | Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. | Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak. | Irainak, debaldeko salaketak eta difamazioak ez dira onartuko.

Hitzak soberan

Mikel Salaberria Otxotorena



Zabalik da matrikula Udal Euskaltegian

2 eguneko moduloa, 4 eguneko edota autoikaskuntza egongo dira aurten; eta aukera zabala eskaini dute ordutegi aldetik.

HERNANI UDAL EUSKALTEGIA

Zabalik da aurtengo ikasturtean matrikulatzeko epea, eta «denentzako moduko aukerak» daudela jakinarazi dute Udal Euskaltegiako arduradunek. «Oso pozik gaude gure ikasleek lortutako emaitzekin eta zorionak eman nahi dizkiegu joan den ikasturtean A1, A2 eta B1 mailako titulua akreditatu eta B2 eta C1eko titulua lortu duten gure ikasle guztiei».

Aurten ere HABEren A1, A2 eta B1eko titulua euskaltegian bertan lortzeko aukera izango dute ikasleek. «Prest dugu jada esperientzia haundiko eta formazio oparoko irakasle taldea 2020-2021 ikasturterako, ikasle beharrei ahalik eta txukun erantzun eta helburuak lortzen laguntzeko», adierazi dute Udal Euskaltegian.

Hainbat aukera eskaini dituzte Udal Euskaltegian aurtengo ikasturterako. Astean bi egunetako moduloa, 4 egunetako (euskera azkarrago ikasi nahi duenarentzat) eta autoikaskuntza ere izango dute aurten. Azken hau online izango da, astean behin euskaltegira joanda.

Gainera, 2020-2021 ikasturteko ordutegia ere zabala izango da. Goizean, arratsaldeak eta ilunabarrean izango dira eskolak, «ikaslearentzat egokiena den orduan».

Izena emateko hainbat bide

Aurtengo ikasturterako edozein mailatan izena eman nahi duenak Udal Euskaltegian bertan egin dezake inskripzioa. Karobieta auzoko 63garren zenbakian dago lokala, ambulatorio zaharrean. Goizetan 09:30etatik 13:30etara bitartean eta arratsaldetan, 16:30etatik 19:30etara bitartean eman daiteke izena. Hala ere, telefonoz ere egin daiteke, 943 331 896 telefono zenbakian; WhatsApp bidez 688 826 539 kontaktuan edo emailez, baita ere, euskaltegi@hernani.eus helbide elektronikoa. **K**

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

PERFECTO BARO BARO
"Jose Mari"
Atzo hil zen Gasteizen, 75 urte zituela

- Goian bego -

Emaztea: Candelas Liébana Alcalde; semeak: Óscar eta Jon; ezkon alabak: Ruth eta Beatriz; bilobak: Naroa eta Maialen; anai-arrebak: Ismael eta Maite, Victorio eta Mariví, Balbi eta Elías; ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizute eta arren etor zaitetzela **GAUR, ASTEARTEA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN**, **Gasteizko SANTU GUZTIEN** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2020ko irailaren 15ean

OHARRA: Agurtze ekitaldia **GAUR, ASTEARTEA**, arratsaldeko **ORDU BIETAN**, **Gasteizko ALBIA EHORZKETA TANATORIOAN** (Gamarrá plaza 4) egingo da arratsaldeko 14:00etan.

BEGOÑA OLARAN ESNAL

Besarkada bat familiari.

PORTUKO AUZO ELKARTEA

Hernanin, 2020ko irailaren 15ean

IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**